

MOZIO ARRUNTA, KARLOS I.AREN HIRIBIDEKO BIDEZUBI-HORMA KENTZEA DELA-ETA: AMARA AUZOKO BIDE-SAREA BERE ONERA EKARTZEKO APUSTUA

Foru Aldundiak ekin die bere titulartasunekoak diren Karlos I.aren hiribideko lau zirkulazio erreietatik bat kentzeko lanei. Esku-hartze partziala da: oinezkoei alde horretatik ibiltzeko aukera gehiago ematen die (oinezkoentzako bi pasabide berri), baina ia ezer ez du gutxitzen alde horretako ibilgailuen zirkulazioa, ez auzoko kutsadura akustikoko indizeak ere.

Donostiako Sozialisten udal taldekoek (PSE-EE) oraindik jarraitzen dugu pentsatzen Amara auzoak, oro har, saihebidetik ospitaleetara doazen bideak eta Urumeako autobiarekiko loturak abian jarri eta gero, esku-hartze global bat behar duela, erakundeen artean adostua, oinezkoentzako hobekuntzen eta mugikortasun sostengagarriaren aldeko behin betiko pausu bat emate aldera.

Horregatik, gure iritziz, hiriko Udalak jarraitu behar du Karlos I.aren hiribidea hiribide moderno eta erakargarri bihurtzeko eskatzen. Horretarako, auzoa bitan banatzen duen saihebidia guztiz kendu behar da, inguruan dauden oinezkoen esparruak hobetu, batez ere, Karlos I.a bera eta Podavines aldea, gaur egun Cortazar Arkitektoen kalean dagoen autobus geltokiak hartzen duen espazioa berreskuratu eta trafikoa murrizteko disuasio neurriak hartu Loiolako Erriberetan.

Egin beharreko esku-hartzeak askotarikoak dira eta toki handi samarra hartuko dute biztanle gehien dituen hiriko auzoan. Horregatik, Oinezkoentzako Hobekuntzak egiteko eta Espazio Publikoetan eta Bideetan Esku Hartzeko Plan Global bat, Amara osoa kontuan hartuko duena, behar da.

Hori dela eta, behean sinatzen duen zinegotizak honako MOZIO ARRUNTA aurkezten du:

- 1.- Donostiako Udaltzako Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio gaur egun Karlos I.aren hiribideko saihebidia osatzen duen bide/horma behin betiko kentzeko.
- 2.- Udalak Foru Aldundiari eskatzen dio pantaila akustikoak jartzeko Donostiako saihebidetan, Loiolako Erriberak eta Loiola auzoen ondoko aldeetan.
- 3.- Udalak erabaki du Oinezkoentzako Hobekuntzak egiteko eta Espazio Publikoetan eta Bideetan Esku Hartzeko Plan Global bat egitea Amara osorako, Karlos I.aren hiribideko saihebidia osatzen duen bide/horma kendu eta gaur egungo autobus geltokia tokiz aldatzen denetik aurrera.

Donostia, 2015eko apirilaren 13a

Ernesto Gasco,
PSE-EEko bozeramailea